


LIBURU GOMENDIOAK


1. ZIKLOA



Bi mutilek elkar ezagutzen dute, lagun egin eta maitemindu egiten dira. Zailtasun berezirik gabeko gertaera bat da, baina badakigu bizitza ez dela horrelakoa. Are gutxiago 14 eta 16 urte bitartean badituzu. Nick eta Charlie institutu berera doaz, mutilen ikastetxe batera. Egun batean, elkarren ondoan eseri beharko dute klasean, eta berehala ohartuko dira ondo moldatzen direla. Charlie, ordea, Nickekin maiteminduko da, eta Nick heterosexuala da. Tao da Charlieren lagunik onena, eta hark abisatzen dio, bai, Charlieri, kontua ez dela ondo aterako...



Beire ingelesa ikasteko udaleku batera bidali dute gurasoek. Bere institutuan gelako liderra den arren, udalekuan inork ez du aintzat hartzen, eta Baba izeneko mutil misteriotso batengan aurkituko du babesa, boxeoa ikasteaz gainera. Etxera itzulita, bere betiko lagun Kar eta Leterekin batera, hirurek osatzen duten Sua taldea prest dago, berriz ere, institutuko izarrak izan eta egurra emateko, baina badirudi aurtengo ikasturtean gauzak desberdinak izango direla.



LIBURU HAU DESBERDINA DA Istorio honetan gertatuko dena **ZURE** eskuetan dago. Misterioak, arriskuak eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure adimena eta bileziak erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai! Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu, zure istorioaren ibilbidea aldatu dezakezu. Ez galdu Arrisku Handiko Trena eta zoaz Parisera ikasbidaian. Agian lagun

berriak egingo dituzu, maitemindu egingo zara, agian detektibe onenen moduan arituko zara eta zure bizitzako bidaiarik zirraragarriena izango da edo agian ez, agian ikasbidaiarik gabe geratuko zara, agian gaizkileak gailenduko dira eta ezingo duzu gertatu zaizuna inoiz kontatu, agian kartzelatik kontatuko beharko duzu. Ausartuko zara? Gertatzen dena gertatzen dela ere, **ZORTE ON ZU ZARA PROTAGONISTA!**

2. ZIKLOA



Institutuko sarrerako horman LEA PUTA idatzita aurkitu dute ikasleek, eta ikusi orduko, azpianean hasi dira guztiak Leak halako mezua jasotzeko zein arrazoi ote dauden jakiteko. Pintadak, halere, ikaskideen artean dauden beste hamaika horma jarriko ditu agerian.

Denok ditugu iraintzen gaituzten hormak, esamoldeak eta jarrerak.

Eskolako hormak batzuentzat ate zabalak dira, beste batzuentzat egunero gainditu beharreko hesiak



Hamabost urteko neska lesbiana baten egunerokoa da hau. Maitasuna, harremanak, ikasketak, nerabezaroa eta helduaroa ditu hizpide



Aminata naiz, hamasei urte ditut eta duela urtebete hasi nuen bidaia hau. Entzuten ari bazatzaizkit, telefono hau jaso duzun horri, eskatzen dizut, mesedez, familiari nire berri emateko. Horixe Itsasok hondartzan botila batean topatutako mezua. Telefono batean, adinkide duen Amiren dei etsia.

Oporretako hondartza zoragarri batean, botila batean gordeta, itsasoan galdutako bizitza baten istorioa; testamendu bat, erregu bat.

Itsasoaren hegi banatan bereizita Aminata eta Itsaso. Bata beltza eta zuria bestea, bata zuria eta beltza bestea, argazki baten negatiboan bezala.

BATXILERGOA



Zurriola Beach Hostel ostatua izango da duela mende bateko bi familien bizipenen agertokia eta haien ondorengo gazte batzuen elkarbizitzaren eta

ataka zailen eszenatokia. Gerra batek baldintzatu zituen lehenengoen bizitzak hiriaren turistifikazioak eta etxejabeen lukurreriak bigarrenak. Jakin-mina piztu eta bukaeraraino eusten dion trama korapilatsu batean nahasita daude guztiak.



Herriko gazteak suminduta daude izurrite zikinaren ondorioz ezarritako debekuen erruz. Ez dago eskubiderik, urterik ederrenak lapurtu nahi dizkiete. Kokoteraino

daudenez, gaupasa klandestinoak antolatu dute herriko eraikin abandonatuan. Damutuko dira, dedio! Adiskide baten hilketak oso kolpe latza da. Eta salaketa anonimoek eta mendeku goseak egundoko triskantza eragin dezakete.